

NORA JO ETA BALIABIDEAK

Osakidetzako Lehen Mailako atentzioko sareak sistema sanitariora sartzeko ate-funtzioak egiten ditu. Horrela bada, **zure Osasun Zentroko medikua** da lehenengo jo beharreko erreferentzia-puntua, atentzio mediko efikaza hartzeko.



Bertan egiten dizuten diagnostikoa abiapuntutzat hartuta, dagokizun Osasun Mentaleko Zentroko profesionalaren batengana bidaliko zaituzte. Bertan, zure kasua behar bezala ebaluatuko dute eta, beharrezkoa izanez gero, IPTen tratamenturako Programa Espezifikora bidaliko zaituzte.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak [Jateko Portaerako Trastornoen](#) (pdf, 1,2 Mb) inguruko hainbat informazio bildu du honako txostenean. Besteak beste, modu horretako trastornoak atzematen direnean jarraitu beharreko pausuak, nora jo behar den eta ze ondorio izan ditzakeen azaltzen da.

ACABE elkarteak

[ACABE](#) elkarteak anorexia eta bulimia nerbioaren aurka egiten saiatzen den irabazteko asmorik gabekoa da. Gaixoen senideek eta boluntarioek osatzen dute 1994an sortu zen elkarte hau.

Gaixotasun hauek sendatzeko oso garrantzitsua da gaixotasunaz garaiz jabetzea, eta susmoren bat izanez gero, medikuarengana jo behar da. Sendabidea luzea da, aditu oso espezializatuen laguntza behar da eta babes osoa familia eta inguruko pertsonen aldetik. Hau da, ezinbestekoa da familiaren berotasuna eta aholkularitza gaixoa sendatzeko prozesuan zehar. Helburua gaitzak jotako pertsonak bere baloreetan oinarritutako nortasuna garatzea da, kulturako estereotipoetatik ihes eginda.

ACABE elkarteak gaixoei eta beraien senitartekoei behar duten harrera eta laguntza eskaintzen diete Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan dituen bulegoetan.

➤ [ACABE - Álava](#)

Pintor Vicente Abreu, 7 - 01008 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 242578 araba@acabeeuskadi.org



➤ [ACABE - Bizkaia](#)

Grupo Inmaculada, 2 y 3 - 48015 Bilbao

Tel.: 94 4756642 acabebi@telefonica.net

➤ [ACABE - Gipuzkoa](#)

- Pº de Mons, 32 bajo (Intxaurreondo) - 20015 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 326250 gipuzkoa@acabeeuskadi.org

- Pº Jose Luis Iñarra 30-32 bajo (Bº Altamira) - 20500 Arrasate

Tel.: 943 796927 arrasate@acabaeuskadi.org